


ttipi-ttapa

93.eko Martxoak 11

105. zenbakia

dohain banatzen da



**SOLUZIOA
KALITATEAN DAGO**

EGB BUKATUTA ZER?

O
R
O
N
O
Z
K
O



E
S
K
O
L
A



FORESTALA
AGROPEKUARIAK



HOSTELERIA

MEKANIKA
SOLDADURA

EUSKARAZ eta ERDARAZ

Hasi: **14 urtetan**. Zona honetan, eskola honek bakarrik "OFIZIOA" EGB egin ondoren.

Praktikak: Lantegi edo Enpresatan

Jantokia - Erresidentzia

Tfnoa: 592006

Faxa: 592006

non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/24 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 25 KIROLAK:** Berako XX. pilota txapelketaren finalak jokatu ziren.
-
- 26 ERREPORTAIA:** "Artzantzaren etorkizuna zalantzan", Europako kompetentziak prezioak jeitsi arazi ditu azken urtetan.
Aitor Arozena
-
- 28 ELKARRIZKETA:** Pello Martikorena: "Kalitate-prezioa kontutan hartuz produktu logratuak ditugu".
Joxemanuel Irigoien
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.400 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Peilo Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernu....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248/510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarlan515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► **Martxoaren 13-14ean**, Bera, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Martxoaren 19an**, Lesaka, Ituren eta F. Elizalde (Elizondo).

► **Martxoaren 20-21ean**, Arantza, NARBARTE eta F. Elizalde (Elizondo).

Deialdiak

► **ARANTZA**, martxoaren 11an, Euskara Batzordearen bilera.

► **LESAKA**, martxoaren 18an, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

► **LEITZA**, martxoaren 27an, arratsaldeko 7etan Aurrera elkarteko junta berri-zeko hauteskundeak.

Kantaldiak**SARA****OSKORRI**

Martxoaren 14ean, arratsaldeko 5etan, *Os-korri* taldearen kantaldia Kirol Aterpean. Ondotik, erromeria, Berako *Zizkuitz* txarangarekin. Ikastolaren alde.

Bota bertsoa**Miren BIDARTE**

Bortzirietako Bertso Eskolakoa

Gaia: Nafarroako txapelketa**Doinua:** Amodioa zoin den zoroa

Euskal Herrian bertso munduak badauka txoko liraina
Nafarroako txapel nagusiak dauka zertxobait bikaina
honen jabea bertsolari ona
Arozena dugu baina horrei kentzeko haina bazara
ona zerade alajaina.

Martxoak zazpi Etxarrin dugu lenengo kanporaketa
aurten gaztetu egingo zaigu Nafarroko txapelketa
denak txapela nahi dute eta daude ilusioz beteta
etorkizuna ziurtatu da gaztik hasi dira eta.

AGENDA

Zinema

▶ DONEZTEBE

Martxoaren 13-14ean "Codigo Azul". 20-21ean "Jaque al asesino".

▶ LEITZA

Zine emanaldiak berriro hasi badira ere, oraindik ez dira filmeen izenburuak zehaztu

Ikastaroak

▶ DONEZTEBE

SOZIOLINGUISTIKA

Martxoaren 15ean, "Euskara taldeak". Beinke, AED.

17an, "Udal hizkuntz politika". Orio, Leitza-Larraun.

22ean "Hizkuntz anitzeko estatuaren politika". Txillardeggi.

24ean "Nafarroako, EAEko eta Katalunyakozko hizkuntz politika". HPIN, HPZN, DGPL.

Gastronomia

TXURI ETA BELTZA

Osagaiak 4 lagunendako:

8 bildots hanka, 12 arraultze, perrexila, bildots urina eta odola, tipula bat, bi baratzuri, esne litro laurdena, gatza eta tomatea.

Bildots hankak egosi ondoren (gelatina duen ura gorde) zartagi batean frijitu. Gero irina eta arraultzean rebozatu. Xuria egiteko,



Mª Jose LARRIOZek emana-OITZ

ontzi batean irabiaturiko arraultzeak, perrexil pixko

bat, bildots urin puxka bat, tipula eta baratzuriak ongi xehetuak, esnea eta gatza jarri. Ongi nahasi eta kaxula batean egosten paratu, likido guztia bildotsaren ertzean sartu eta hozterakoan ertzea kendu eta xerretan ebaki. Bildotsaren odola ere frijitzen paratu. Kaxula batean gelatina jarri eta hankak, txuria eta beltza bota eta gainetik xehetutako tomatea bota.

Baserriko feria

▶ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 5.580 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 146pzta/kilo **Zerramak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

▶ BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....570
1.koa.....540
2.koa.....520

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal

Extra.....590
1.koa.....550
2.koa.....520
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 340 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 410 Pzta./Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 13.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 26.000 eta idixkoak 37.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»


Aseguro mota guziak

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

11 galdera Ilabur



Alix Mitxelena
Lesakako gaztea

- ▶ **Lesaka ala Bera?** Beran lana, Lesakan bizi.
- ▶ **Harremanak, erraxagoak Lesakan ala Beran?** Lesakan, gauzak garbiago ematen dira eta.
- ▶ **Sagardotegial ala ostatuak?** Normalean ostatuak, noizbehinka sagardotegiak.
- ▶ **Oporretan, Afrika ala Amerika?** Biak, oso biziak dira nahiz dirurik ez eduki.
- ▶ **Zizka ala Puy?** Orain Puy.
- ▶ **Barra barrendik ala kanpotik?** Jendea ezagutzeko barrendik, egoteko kanpotik.
- ▶ **Zenbat aldiz garbitzen dituzu hortzak egunean?** Egunean!!!!
- ▶ **Zenbat denbora pasatzen duk hire burua txukuntzen?** Sobera.
- ▶ **Negar egin duken azken eguna?** Hori, neretzat.
- ▶ **Bizio bat?** Lasaitasuna
- ▶ **Zenbat gezur erran dituzu?** Ezta bat ere.

▶ Niños Robados Gianni Amelio Italia - 1992

Gianni Amelio italiar zuzendaria, telebistako zuzendari laguntzaile bezala hasi zen.

1970etik aintzinera bere lehen lanak aurkeztu zituen RAI telebista kanalean. Pantaila haundian "Colpire al Cuore" (1983) ondotik "Porte Aperte" egin zuen, Europako filmarik hobere-naren saria irabazi zuen 1990-ean, "Felix" saria. Estatu eta Euskadiko pantailetan ezezaguna. Ondotik "Niños Robados" egin zuen eta berriro Europako



Denbora luze gabe gure pantailetan ikusteko aukera izanen dugu

filma hobere-naren "Felix" saria-92 irabazi zen, eta gainera, "David di Donatello" ren zuzendaritza eta filma hobere-naren sariak.

Cannese-ko azken festibalean juradoaren sari berezia ere irabazi zuen. Denbora luze gabe gure pantailetan ikusteko aukera

izanen dugu. Erne egon behar-ko, horrelako filmak ez baitute batzutan biz-pahiru egun ber-terik irauten.

Guraso batzuk euren 11 urteko alaba bor-tzarazi egin dute, eta bere 10 urteko anaiak salatu eta kartzelaraz-ten ditu. Bidai luze bat bihur-

tzen da anai ar-reben bizia, Italian zehar polizi baten laguntzarekin. Lehendabizi Bo-loniako ume-zurztegi edo or-fanato batera eta gero Sizilia-runtz. Bidai har-rigarri honen gertakizun sozial eta adiskidantzan dauka filma ho-nek berezitasuna.

MARIANO

CLAAS S. Semper



SAME

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, 631238 Tfnoan, Agerra Industrialdean

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



Cederna-Garalur elkarteko Bortziriak eta Malerrekarako udal ordezkaria Berako Gloria Agerrri izanen da hemendik aintzinerara, orain arte Lesakako alkatearen postua betez. Herri Garapenerako agente bezala, berriz, Doneztebeko Arantxa Arregi kontratatu da.



"Egonaldiak familia Euskaldunetan" Eusko Jaurlaritzak urtero egiten duen plangintzan sartzeko epea zabaldu dago hilaren 31a bitarte. Xehetasunak euskara zerbitzuetan aurki ditzakezue.

Nafarroako Bertsolari txapelketa martxan



Igande honetan Etxarri-Aranatzen hasiera eman zaio Nafarroako bertsolari txapelketaren edizio berri bati. Bertan, J.F. Argiñarena, Amaia Telletxea, Manu Gomez, Antonio Olano, Estitxu Fernandez, Laka eta Xabier Silveira izan ziren. Martxoaren 14ean Heletan izanen da bigarren kanporaketa, Jesus Arzallus, Urko Atxutegi, Estitxu Arozena, Iñigo Olae-

txea, Fermin Mihura, Xalbador eta Jean Pierre Mendibururen partaide-tzarekin. Hilaren 28an Beran eginen den saioan Manolo Arozena, Bittor Elizagoien, J.M. Argiñarena, Aitor Telletxea, Luis Etxeberria, Txomin Ezponda eta Txomin Amorena arituko dira. Finala, apirilaren 4ean izanen da Iruñeko Gaiarre antzokian. Hogei urtetik behitiko 7 bertsolari aurten.

INFORMAZIOA:

- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



IRAKURLEAK MINTZO

HERRIKO EZAUGARRIAK ERRESPETA DITZAGUN

Aspalditik diote-
nez herrietako ohitu-
ra bat da iturri bat
egitean zuhaitz bat
landatzea ondoan.
Hau horrela bada,
Aranoko herriaren
erdian dagoen itu-
rriak larogei urte bai-
no gehiago ditu.
Hortaz, haren ondoan
dagoen zuhaitzak ere
bai.

Zuhaitza ederra
zen benetan, baina
hiru besoetako bat

erdi erditik moztu
diote. Herritar askori
min haundia eman
digu ekintza honek.

Herriko agintariei
hau eskatuko genie-
ke "MESEDEZ":
herriko ezaugarriak
zaindu eta babestu
egin behar direla eta
ez desagertarazi.



Arantxa eta
Ainhoa Ansa
(ARANO)

Oharra

Eritzi ezberdinek
tokia izan dezaten, ez
da komeni makinaz
idatzitako 25 lerro bai-
no luzeago idaztea
gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, tele-
fonia, helbidea eta
NANren zenbakia
agertu beharko dira.
Laburtu beharra izan-
ez gero, erredakzio-
ak bere esku izanen
du horretarako es-
kubidea.

SAROBÉ okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

Masaia eta bizkortze ariketak

Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astelehen, asteazken eta ortziraletan, 15,30etatik aintzinera
Astearte eta ortzegunetan, 9,30etatik 13etara eta 14,30etatik aintzinera
Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA



MOLINERO PINTURAK

Etxe barneko hezetasun eta
kondentsazio problemak molda-
tuko dizkizugu eta gainera, barne
edo kanpoalderako behar dituzun
pintura plastikoen araberrako
prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40
BERA



ZALAIN MOTOR AUKERAKO KOTXEAK

- Ford Transit mixtoa, 6 eserle-
ku. 82koa, motor berriarekin.
375.000 pzta
- Volkswagen Golf GTI 83koa.
550.000 pzta.
- Ford Fiesta 82koa. 200.000.
- Peugeot 309, 88koa. 700.000.
- Ford Orion 16D 88koa. 700.000.

Tfnoa: 631157 - BERA

Moldatu ondotik, martxoan zabalduko da mataderia

Aurrerantzean eskatuko diren baldintza legal guztiak beteko ditu

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Europatik datozen legedi berrien arabera, baldintza zehatzak bete behar dituzte mataderiek zabalik segitzekotan. Zentzu horretan, Berako mataderia baldintza horietara egokitzeko, behar diren obrak burutzen ari dira azkeneko hilabete honetan.

Etorkizunean, «mataderia artisanala» kontsideratuko da, eta asteen 12,6 azinda buru hil ahalko dira bertan banaz bertze.

Bortzirietako bakarra Bortzirietan bertzerik ez dagoenez, bertze herrietako harakinek Berako mataderia erabiltzen dute gaur egun ere. Dena dela asteen 12,6 azinda buru baino gehiago hil beharra suertatuko baltiz, "Berako harakinek izanen dute lehentasuna txandan", halaxe adierazi du Manuel Iriarte, Berako



Legedi berria indarrean jartzean, eskatuko diren baldintzak beteko ditu Berako mataderiak orain egiten ari diren moldaketei esker.

alkateak. Berakoa martxan jarri artean Doneztebekora joanen dira. Gaur egun Berako mataderia erabiltzen duten harakinek hamarren bat dira eta hauetatik erdiak dira Berakoak, hiru Lesakakoak eta Arantza, Igantzi eta Etxalartik bana.

Aipatu azkenik, egokitzeko lan hauek sei milioi pezeta inguru kostako dira.

W ttipi-flash

- Biztanleen udal erroldan 1993ko urtarrilaren 1ean 3.543 lagun zeuden erroldatuak, 1806 gizonzko eta 1737 emakumezko. Iazko urte hasieran baino hamabortz biztanle gehiago daude.
- Gure Txokoa elkarteak urteroko batzarra burutu zuen hilaren 6ean, zuzendaritza batzorde berria aukeratuz bertan.



Larogei bikotetik goiti parte hartu zuten aurtengo hogeigarren edizioa betetzen zuten Berako pilota txapelketan

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

BORTZIRI
ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

LESAKA

Udalak ez ditu intsumisoak lagunduko

Herri Asanbladaren mozioaren kontra botatu zuen PNVk

AITOR AROZENA

Manuel Zamorano herriko intsumisoari maiatzaren 4ean eginen zaion epaiketaren kontra Herri Asanbladak aurkeztutako mozioa ez zen onartu PNVk aurka botoa eman baitzuen. EAK mozioaren puntu guziekiko adostasuna agertu zuen, 250.000 pezetako dirulaguntza ematea eskatzen zuenarekin ezik eta HBk mozioaren alde botoa eman zuen, bere osotasunean. Epaike-ta ez egitea ezijitzeaz gain, elkartasuna adieraztea eskatzen zitzaion udalari. Epaike-ta egitekotan, udala autoinkulpatzea ere eskatzen zen idatzian. Erabe-rean, intsumisioaren aldeko deialdia gazteei zabaltzea eta maiatzaren leian egin asmo den gaupasarako kioskoa uztea eskatzen zitzaion Udalari.

Alkateak erran zuenez,



Ping-pong txapelketaren IX. edizioa jokatu zen Bordienea Jolas-tokian. Txapeladuna, J.A. Ibarra izan zen finalean Josu Irigoienari irabaziz. Hirugarren eta laugarren postuan, Mujika eta Calleja gelditu ziren. Aurtengoan, hogeitabertz lagunetik goiti eman zuten izena.

“iniziatiba honek ez du seriotasunik” eta Udalak ezin du intsumisioa bultzatu, “*ekintza hau delitutzat hartua bait dago eta hainbat arazo sortu diezaioke gazteei*”. Halere, Lesakako gazteentzako aholkularitza zerbitzua osatzeko hitza eman zuen. Bertze gainerako puntuak ere ez zituen onartu PNVk.

HBko ordezkariak ora-

in dela 3 urte intsumisioaren alde udalak ahobatez onartutako mozioa irakurri zuen, PNVkoei iritzi aldaketaren arrazoiak galde-tuz. Hauen erantzuna, “*edozeinek izan dezake noizbait errakuntzaren bat, baina hori urteen buruan molda daiteke*” izan zen, “*emandako iritzi aldaketa, Lesakako gazteen onerako izanen dela*” gaineratuz.

ttipi-flash

- **Beti Gazte** elkarteak urteroko asanblada orokorra burutu du asteburu honetan. Ohizko gaiekin batera, egoitza sozialaren moldaketaz eta Donostiako Real Sociedad taldearekiko konbenioaz solastu behar zuten.
- **Emakumeen Eguna** modu berezi batean ospatu dute larunbat honetan Matxinbeltzanean. Lehenik, Marilen Zarraluki sikologa eta sexologaren hitzaldia “*Emakumearen eboluzioa azken mendeen*” izenburupean. Ondoren, emakumeen bertso afaria, Estitxu Fernandez eta Amaia Telletxea bertsolariekin eta menu berexiarekin.
- **25.000** pezetako multa paratu dio Nafarroako Gobernuak Osasun Sailak udalari, «Andra-Mari» zahar etxe-ko osasun baldintza eskaxengatik.

ARRANO

OSTATUA
Legarrea - **LESAKA**

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 **LESAKA**

XATURETXEA
FONDA
Tfnoa.: 63 70 27 **LESAKA**

★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA
Bittiria Tfnoa.: 637429 - **LESAKA**

KOSKILLA
OSTATUA
*Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin*
Zarandia 4 - **LESAKA**

“Larraburua” elkarteak iaz egindakoaren berri eman du

Horretarako herriko baimena izanagatik, Nafarroako Gobernuarena ere beharko da

PELLO APEZETXEA

Otsailaren 21ean izan zen Batzar Nagusia eta bertan emandako hainbat xehetasun aipatuko ditugu: Sozioak 155 dira. Berarentzat lau bazkari antolatu ditu urtean barrena, bere ondorengo soinu eta dantzaldiekin. Errege egunean, berriz, herriko haurrei berendua eman zitzaion. Antolatutako zerbitzu nabarmena podologoarena da; 296.000 pezetatoko tresneria erosi eta podologoa bi hilabetetik edo, ekarri. Ondoko herrietako jubilatuek ere zerbitzu horretaz baliatzen hasi dira. Lehen mus txapelketa ere burutu zen. Iganderoko ostatu zerbi-



Iñauterietan gaztetxoek animatu ziren mozorroak hartu eta karrikara ateratzen

Argazkia: PELLO

tzuak ez du hutsegiten. 45.000 pezeta gelditu dira urtearen azkenean.

Udaletxeko moldaketa lanak

Martxoaren 17a da lanak egin nahi dituztenen

eskeintzak jasotzeko azken eguna, eta abuztuaren azkenerako bukatuak egon behar dute. 23.226.037 pza kostako diren lanak honako hauek dira: ostatua eta jantokia moldatu, behekoa

taberna hutsa bihurtuz eta jantokitarako lehenbiziko solairuko zatia erreserbatuz. Sukaldean ere lanak egingen dira, legeak eskatzen duenari egokitzeko. Gauza nabarmena sarrerarena izanen da: ofizinetarako eta sukalderako sarrera ez baita bera izanen, orain arte bezala. Lehenbiziko solairuan, jantokiaz gain, Gizarte Zerbitzu eta Zabor Mankomunitateko bulegoak prestatuko dira, gainerako zerbitzu guzietan bigarren solairuan segituz. Ondorioz, gehienetan jendeak bi solairuetako eskalerak igan beharko ditu, eta oinez noski, astensorerik ezean. Etxe osorako berogailua ere paratuko da.

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

KOXXKONTA



Sagardotegia ZABALIK

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

IGANTZI

Firmatzeko prest dago Zahar Etxea egiteko hitzarmena

Bertzalde, San Juan Xar kooperatibaren iazko kontuak agertu ziren otsailaren 27an

OSKAR TXOPERENA

Azkeneko udalbatza-
rrean Zahar Etxea egiteko
Nafarroako Gobernu eta
Udalaren arteko hitzarme-
naren borradorea onartu
zen ahobatez. Honetan
erraten denez, beharrezkoa
ikusten da Zahar Etxea
egitea Igantzin, eta horre-
tarako, bakoitzak
36.372.992 pezetatako au-
rrekontuaren erdia ordain-
duko duela onartzen du.
Beraz, bakoitzari 18 milioi
pezeta inguru ordaintzea
dagokio. Jakina den beza-
la, Zahar Etxea pistzina
ondoan eginen da.

**Kooperatibako
bilera**

Urtean behin koopera-



Martxoaren 14ean joanen dira igantziarrak mendiz goizuetara, duela aste batzuk egindako bisita itzuliaz. Orduko argazkia duzue hauxe. Izen emateko epea martxoaren 11a izanen da Biltokin.

OSKAR

tibakoek egin ohi duten
bilera nagusia otsailaren
27an izan zen. Urteko kon-
tuak izan ziren aipagai na-
gusia. Sarrerak 17.165.418
pezetatakoak izan baziren,
16.953.247 pezetatako or-

daintetak egin ziren iaz.
Beraz, ia-ia parean gelditu
zen urteko balantzea. Ber-
tzalde, lau milioi terdiko
ondasunak ditu kooperati-
bak abenduko 31ra egin-
dako kontuen arabera.

Bertze gauzen artean era-
baki zen baita, kooperati-
baren kontu nagusia, Arte-
kari gestoriaren esku uz-
tea, azken bolada honetan
gai ekonomikoak hartu
duten zailtasunarengatik.

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako mogleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

Larunbat
arratsaldetan
zabalik



KATTU

**OSTATUA
JATETXEA**

- Karta

- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • **LESAKA**




Frontoian ura sartzen dela eta kexu azaldu da jendea

Elurrak, bertzalde, zenbait arazo sortu zituen eskoletara iristeko

MIRARI eta MARTA

Goiko karrikan ur eska-pe bat izan zen lehengo astean, tuboa zaharra zela eta. Halare, abudo moldatu zuten Hilario eta Juanek. Bertze gainerakoan, ez dago berri gehiegirik herrian.

Hara, norbaitek bere keja bota du, ondotik beste hainbatek apoiatu ere. Zer izan behar eta **frontoia**, noski. Bukatuta ere, frontoiak beti badu bere berria. Honela erran du: frontoian ura sartzen da. Hala da bai, euria dela edo elurra, frontoia bustia dago. **Elurra** aipatu dugunez, joan den astearte arratsaldean elurra hasi zuen eta nola hasi



Frontoiaren obrak bukatu ondoren ere kejak daude, euria egiten duenean ura sartzen dela eta

MARTA

ere. Hamarretan oraindik gelditu gabe. Gerokoa ez dakigu, guk ikasleok lo lasai egin behar izaten baitugu biharamonean lana ongi egiteko. Hala ere hurrengo egunean eskolara ez joate-

ko ilusioarekin joan ginen ohatzera, baita honela esnatu ere. Kalera begiratu eta dena xuri xuria, ze polita. Hala bada, alferrenak berriz ohatzean sartu ziren, bertzeak aman aurrean di-

simulatzeko behinipein edo amak bidalita ere autobusan berri eske joan ziren. Lehenbiziko autobusa, Lekarozekoa, abiatu, baita ailegatu ere. Bigarrenera, ordea, Berako autobusera herritarrak bakarra agertu ziren, baserritarrak, Aientza eta Azkilarrekoakpistan egoeratik ezin izan zuten etorri. Beraz ez zen inor joan Berara. Arantzako eskolakoak, berriz, berdin: ez zen klaserik izan. Loaz ase eta arratsaldean elurretara. Batzuk elur pilotaka, bertzeak berriz plastikoa hartu eta ipurdin gainean belagietan goiti eta behiti. Egundatez izan den arren, behar bezala aprobetxatu dugu elurra.

LAINO
%30eko **DESKUENTOAK**
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

ETXEGARAI BIDEO KLUBA
Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta banakakoak
Konponketa tailerra
Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

MARI LUZ SPORT
ESTETIKA • SOLARIUM
GIMNASILEKUA
Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK

ERRO BIDAIK

- ✗ HERRIAK
- ✗ MENDIAK
- ✗ TURISMOA
- ✗ TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANZA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUIN

BIDAI AGENTZIA
G.A.T. 2.015

SUNBILLA

Ulibeltzak elkartearen asanblada orokorra

Kargu berriak eta iazko kontuak onartu ziren

IOSUNE ETA IXABEL

Joan den otsailaren 27an burutu zen Ulibeltzak elkartearen asanblada orokorra 30en bat bazkidearen partaidetzarekin. Batzarreko gai ordenaren asuntorik garrantzitsuenak bi izan ziren: batetik iazko kontuak onartzea eta bertetik, kargu berrien aukuraketa. Kargu berriei dago-kionez, honako lagun hauek aukeratu ziren: Rakel Urtxegi, Hilario Urtxegi, Joxemi Petrirena, Clemente Iriarte, Joxemari Iriarte eta Aitor Zugarramurdi. Sei lagun hauek beraien artean banatuko dituzte Juntako ardura ezberdinak.

Aipaturiko puntuez gain, sozio berria bat sartzea ere onartu zen. Momentu hauetan, beraz, Ulibeltzak elkarteak 173ren bat bazkide ditu.

☐ “Demokrazia askatasuna da” kanpainaren aldeko idatzia onartu zuen Udalak ahobatez. Idatzi honek, arrazakeria, sexu marjinazioa etabar salatzen dira.

☐ Udalaren ondasunen inbentarioa egiteko ikastaroa antolatu du Nafarroako gobernuko Herri Administrazio sailak.

☐ Euskadi izenarekin sortu nahi den txirringulartaldearen agertu zen Udala azken plenoan.



Pizina egiteko asmoa du Udalak

Leku-Eder karrikan duela hiruzpalau urte erositako lur sail batean pizina egiteko asmoa dauka Udalak. Pizina honek 20x12 metro iza-

nen omen du.

Joan den ortziralean (hilaren 5ean) gai hau lantzeko bilera bat burutzekoa zen Herriko Etxean.

MENDI HOTELA



DONAMARIAKO BEHTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

Gorabeheren ondotik Erreka eskubaloi taldea ongi dabil

Lehen mailara igotzeko aukera badute oraindik

TXEMA ALDABE

92-93 denboraldiaren hasieran zenbait gorabehera izan ondoren Erreka ekipoak lanari ekin eta txapelketaren lehen fasean lehendabizikoak gelditu ziren bere taldean. Bigarren fasean jokatu dituen 6 partiduetatik 4 irabazi ditu eta bertze biak gol batez galdu. Carmelo Rekarte entrenatzailearen ustez "Burlata da ekiporik hobereena eta gure etsai haundiena. Berari irabaziz gero aukerak izanen ditugutxapeldunizateko". Fase honetako lehenbizikoak I. mailara igotzeko fasean jokatu du.

Aurten koparik ez dute



Erreka eskubaloi taldearen ekipo nagusia

ZALDUA

jokatuko arazo ekonomikoak direla eta, aintzineko zuzendaritzak ez zituelako behar bezala bete bere lanak. Horren ondorioz izan zen denboraldi hasierako krisialditxo. Batzorde berria osatu ondoren (Emilio Zabala,

Kattako eta Frank Ezkurra eta Txomin eta Carmelo laguntzaile) diru iturriak lortzea izan zen lehen helburua, zenbait ekitaldi antolatuz bazkide berriak esdietsi nahian (Eguberrietan zari zozketa, mendi ibilbideak, crossa, eskuba-

W ttipi-flash

- Mediku** berria Jose M^a Lana Moreno iruñearra izanen da plaza fijoate arte. Zonalde euskalduneari ohi denez mediku hau ere erdalduna da.
- Bestetarako** aldizkari bat eginen da lehen aldiz, programarekin eta publizitatez hornitua.

loi torneo bat...)

Gaur egun Errekak 3 talde ditu (helduak, jubenilak eta infantilak) eta honetaz gain, eskubaloi eskolan ari diren haurrak.

Herrian jokatzeko diren partiduetan jende franko hurbiltzen da ikustera.

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Tfnoa: 630735 - BERA Tfnoa: (943) 622305 - IRUN



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE




Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu

TELLETXEA MOBLEAK



Moble erakusketa haundia

- Edozein era eta neurriko altzariak egiten dira. Fabrikanteak gara.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Zure erosketengatik opari ona eramanez duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



GARAICO ESKEINTZA

- ☼ Hazitarako patata
 - ☼ Fruitondoak
 - ☼ Udaberriko landareak
- ETORRI ETA IKUSI

NARBARTE - ☎ 592200

MALERREKA

Zerbitzu Mankomunitatearen karguak aukeratu dira

Hilaren 20ean, funtzionatzen hasteko bertze bilera bat egingen da

TXEMA ALDABE

Otsailaren 27an egingako bileran Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatearen estatutoak onartu eta zuzendaritza karguak aukeratu ziren. Martxoaren 20an bertze bilera bat egingen dute Doneztebeko Herriko Etxean, mankomunitatea martxan paratzeko asmoarekin.

San Miguel lehendakari

Hasiera batean lehendakaritza-

rako boluntariorik ez zegoenez, botazioa egin zen eta Miguel San Miguel, Doneztebeko alkatea izan zen aukeratua. Lehendakari-ordea Juainas Paul zubietarra izanen da eta idazkari eta diruzainaren postua beteko duena, Jose Miguel Galarregi Elgorriagako alkatea.

Komisioiei dagokienez, zabor komisioan, Doneztebeko Tomas Ezkurra

kontzejala eta Beintza-Labien, Urrotz eta Bertizaranako alkateak egonen dira.

Euskara komisioarako, berriz, Oitz, Ituren eta Zubietako alkateak aukeratu zituzten; Oinarrizko Gizarte zerbitzuan Sunbilla, Saldias eta Donamariakoak egonen dira eta Kiroletako komisiorako, azkenik, Do-

neztebeko Tomas Ezkurra eta Iturengo Periko Mingedia kontzejalak eta Elgorriagako alkatea izan ziren aukeratuak.

☐ **Soziolinguistika** ikastaroan 50 lagunek gutti goiti behiti eman dute izena, eta hauetatik gehienak Malerrekakoak dira.




Miguel San Miguel

Zabor erregailua moldatzen hasi dira Beintzan

PATXI OTXANDORENA

Beintza-Labaiengo zabor erregailua moldatzen hasi berriak dira. Obrak 7 milioi inguruko aurrekontua du eta moldatzen den bitartean zaborra eta bidrioa Berara eramaten dira.

Bertzalde, Beintza-Labaienen bertan, kontzentrazio partzelariatzeko bi bilera egin dira. Lur jabeen % 73ak (111



jabe zehazki) dagoeneko firmatu dute eta paperak Diputaziora eramanak

dira. Halere, lau-bortz urte iraungo omen du tramitazio osoak.



Beatriz

ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina



AMEZTIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tf: 450028 - DONEZTEBE

Mari Cruz

LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Ameztia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

Gaztetxoan Iñauteak

DANIEL MARTIRENA

Goizeko 9ak aldera, inoiz baino neskatxa eta mutil ederragorik ikusteko aukerarik bazegoen. Makillajez apainduak, titi eder eta tentez harro-harro, arropa zaharrez jantzita ibili ziren herrian barrena. Mikelek kerrena eramaten zuen eta Davidek arraul-tzeak biltzeko zaria, behin baino gehiagotan bete zituztenak gainera.



Berrogeitamarren bat haurrek parte hartu zuten egun honetan. Oraingoz behintzat ez dago herria desagertuko den beldurrik.

Iñaute kantuen truk eskean lortutakoarekin, guziak Opokan bazkaldu zuten. Bazkalondotik akor-

dioiaren laguntzarekin dantzaldia izan zen, eta bortzak aldera txokolatea gailtekin merendatzeko.

Haurren irribarre zintzoa eta zeramaten giroa ikusita, ez da dudarik eguna primeran pasa zutela.

ttipi-ttaparen 92 urtekaria

URTE OSOA LIBURU BATEAN BILDUA

- ▶ Urteko berririk garrantzitsuenak herriz herri
- ▶ Elkarrizketak eta eritziak
- ▶ Erreportaiak
- ▶ Mahai-inguruak
- ▶ Eskualdeko kirolei errepaso zabala
- ▶ Telefono Agenda bete betea

ttipi-ttaparen 92 urtekaria

Herri guzietan salgai dago

GOIZUETA

Euskara hutsez funtzionatzeko asmoa agertu du Udalak

Udal Elebakarren Mankomunitateko partaide egitea ere onartu berria du

ESTEBAN AROZENA

Azken batzar edo plenoan onartutako ordenantzak betetzen badira bost urte barru gure Udalak euskara hutsean funtzionatuko du, epe horretan herritarrekin eta Euskal Herriko gainontzeko edozein instituzio eta erakundekin gure hizkuntza bakarra erabiliko bait da. Dagoeneko bide horretan pauso asko emanak dira, aktak, zigiluak eta hainbat inprimakin euskaratuak bait daude.

Honekin batera, UEM-eko (Udal Elebakarren Mankomunitatea) partaide da gure udala, aipaturiko



Goizuetako Udala elebakarra izango da hemendik bost urtetara

ARTXIBOA

plenoan hartutako erabakiaren ondoren.

Euskararengaiarekin jarraituz esan, «Oinarriak» taldeak bidalitako idatzia

onartu zela baita. Mozio horretan, «Ley del Vacuence» delakoaren aldaketa eskatzen da euskara Nafarroa osoan hizkuntza ofiziala izan

dadin aldarrikatuz.

Futbito txapelketaren finalak

Nesken eta mutilen futbito txapelketetan finalak jokatu berriak dira. Emakumeei dagokionez, Lurgi taldeak 7 eta 2 irabazi zion Urrutineri. Mutiletan ere, Urrutineatarrak ez zuten sorte gehiegirik izan, 5 eta 2 galdu baitzuten Pasteleria Mirandaren kontra. Esan behar da ikusmin ikaragarria sortu dutela txapelketa hauek, eta horren lekuko bi finalerako giro paregabea aipa genezake.


ARESO

Autobiak kalteak sortu ditu terreno, azinda eta bordetan

JUANA MARI SAIZAR

Autobidearen obrak hainbat kalte sortu dute, batez ere terreno, borda eta ganaduetan. Ustekabe batzu sortu dira obra aurrera doan bitartean; bide berriak ireki, beste batzu zabaldu obrako makinak kabitzen ez zirelako...

Eztandekin kalte ugari izan dituzte behor eta ardiek batez ere, asko hil egin baitira eztrandaren ondorean edo bestela erortzen ziren harriek azpian harrapatzen zituztelako. Autobiakoek azken aldian gehiago begiratzen



Jende asko kexu dago egin dizkieten kalteak konpondu ezinik

dute eta abereak etxera eraman arte ez dute ezandarik egiten. Guzi honen ondo-

rioz jende asko kexu dago, kalte hauek konpontzeko dei eta buelta asko egin behar

dituzte hortaz arduratzen den enpresara.

□ **Nafarroako** Euskal lurraldeko artzapez-barrutiaren eguna, grazia bederatzizurrena, urtero euskaraz egiten da egun batez Jabierren. Hiru urtetatik behin, artzapez-barruti bakoitzak parte hartzen du egun hau ospatzen, eta aurrean Leitza-Larraun aldeari tokatu zaionez, martxoaren Sean Jon, Ivan, Mikel eta Itziar joan dira Aresotik eta bi ofrenda eraman dituzte herriaren oroitzagari: ogi berezi bat eta eguzki lore bat.

Eskola Komarkaleko Guraso Elkartearen aktibitateen aurrekontua bi milioi pezetakoa da kurtso honetarako

JOSEBA AZPIROZ

50.000 pezetako dirulaguntza emango dio Udalak Leitzako Eskolako Guraso Elkarteari 1992-93 ikasturtean zehar antolatzen ari den eskolaz kanpoko aktibitateak burutzeko. Ikasleei zuzendutako ikastaro hauek programatuta dituzte: Ingles, xake, karate, larrua, saskigintza, dibujo eta informatika. Zenbait festa (ihauterietan, kurtso bukarakoa), hitzaldi (APYMA erakundea, astrologia, ingurugiroa, eskola mapa...), kirol, irteerak etabar prestatuak dituzte. Ekitaldi guzti hauen aurrekontua bi milioi pezeta ingurukoa da.

Leitzaldeko ikastetxe publikoek bestalde, ohar batez jakinerazten dute 93-94 ikasturteko matrikula epea zabalik dagoela martxoaren 24a bitarte. 1990ean sortutako umeak matrikula daitezke beraz.



Lan orduetatik kanpo eskola komarkaleko Guraso elkarteak zenbait ekitaldi antolatzen ditu
Arg: ARTXIBOA

Zinema berriro

Aurreko aste bukaeran hasi ziren berriro Aurrerako boluntarioak pelikulak proiektatzen. Azkeneko batzarrean udalak diru ardura hartu zuen eta pelikulen programazioa Udaltzorde baten eta zinemako boluntarioen artean egingo da.

Arazoak konpondu eta gero, zinema denbora as-

koan izatea astero joanez lortuko dugu.

Aurrerako...

juntarako izen emateko epea martxoaren 21ean bukatuko da. Izenak buzoian sartu behar dira eta martxoaren 27an, 7etan lehen deialdian eta 7,30etan bigarrenean egingo dira hauteskundeak. Junta berriak bilatuko duen arazorik larriena diru falta izango da.

W ttipi-flash

☐ **Sutagar**, Sociedad Alkoholika eta Urtz taldeen kontzertua izanen da martxoaren 19an Leitzako Plazan edo frontoian (eguraldiaren arabera).

☐ **Udalak** zenbait obra egieko dirulaguntza eskatuko du aurten ere. INEM-ek onartuz gero, soldatak ordaintzeko dirua ematen du eta Udalak materiala jartzen du. Emakumezko askok beren haserrea agertu dute azken urte hauetan lan hauetarako gizonetzkoak bakarrik kontratatzen direlako. Ea aurten erremedioa jartzen zaion.

☐ **Biztanleen** udal erroldan 1993ko hiltzetaren 1ean 3.169 lagun zeuden Leitzan erroldaturik, 1.640 gizonetzko eta 1.529 emakumezko. Iazko hiltzetaren 1ean baino hamabi lagun guttiago.

SAGASTI Jatetxea

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

Lorea eta Idoloa

ileapaindegia

Tfnoa: 610907 - LEITZA

LEITZARRA TABERNA

Musika ona eta giro hobea

Tfnoa: 510352 - LEITZA

RODRIGUEZ eta ERASO TAILERRA

RENAULT Zerbitzua



- ▶ Banatzailea
- ▶ Salmenta
- ▶ Konponketa



RENAULT

Tfnoa: 510259 • LEITZA

BAZTAN

115 eskari eta 48 etxebizitza banatzeko

Etxe-jabeen zerrenda definitiboak martxoaren erdi alderat onatuko ditu udalbatzak

JOSEBA IGARABIDE

Elizondon eraikiko diren babes ofizialeko 48 etxebizitzaren adjudikazio deialdira, 115 eskari aurkeztu dira epearen barne. Eraikiko diren etxebizitzek, beraz, ez dute demandaren erdia ere asetzen. Dena dela, hilabete honen erdialdera onatuko ditu Baztango Udalak etxebizitza jabeen behin betiko zerrenda. Oiartzabal alkateak adierazi digunez, eskariaren kopuru altua ikusirik, bertze herriren batzutan ere babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea bultzatu nahi, Elbetean eta Oronotzen seguruenik.

Belateko tunela

Lopez Borderias, Nafarroako Gobernuko Herrilan kontseilariak Elizondora berriki egindako bisitaldian adierazi zuenez, jarritako epeak betetzen badira baliteke Belateko tunelaren obrak ekainean hastea.



Laguntza Ofizialeko etxebizitzak sei bloketan banatuko dira, Braulio Iriarte karrikaren segidan.

Zakurren txerto eta identifikazio kanpaina hurrengo bi asteotan

Martxoaren 15etik 26ra burutuko da errabia eta identifikazio kanpaina Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin goiz arratsalde. Txertoa eta mikrotxip-a zakur bakoitzari jartzeak 1.650 pzta. balio ditu eta jabeak karneta eta zakurra- ren paperak eraman behar-ko ditu.

Zein herritan eta noiz

Martxoak 15, astelehena: **Urdazubi, Zugarramurdi eta Orabidean.** Astearteak 16, **Amaiur eta Azpikueta** auzoetan. Asteazkenak 17, **Erratzu** aldean eta **Bozaten.** Ortzegunak 18, **Arizkun** aldean. Astelehen eta asteartean **Elizondon.**

W ttipi-flash

- ☐ **23 milioi** pezeta bilduko ditu Baztango Udalak urte honetako Ibilgailu eta kotxeen Zerga edo inpuestoarekin. Zerga ordaintzeko epea maiatzaren 31an bukatuko da. Epe horretan ordaindu ez dutenek eta ekainaren 30a baino lehen eginez geo, %5 goratuko zaie paga beharra.
- ☐ **Kultur Sustaketa** kanpainaren barnean 14 ikastaro ezberdin antolatu dira.

Asteazkenak 24, **Elbetean** eta **Elizondoko Beartzun** eta **Berron.** Ortzegunak 25, **Gartzain** eta **Lekaroz** aldean.

Bistan denez, norbaitek bere herriari dagokion egunean zakurra txertatzeko modurik ez balu, ondoko herrira eraman dezake. Zita urteroko lekutan izanen da.

“San Fco. Javier” Eskualdeko Ikastetxe Publikoa

1990. urtean sortutako ikasleentzat izen emateko epea zabalik dago.

Eskaera orriak Eskolako Idazkaritzan har eta bete daitezke goizeko 9 t'erdietatik ordu batera eta arratsalde 3etatik 5etara. Izen emate epea Martxoaren 24ra bitartean izanen da.

Zentru honek dituen aukerak hauek dira:

- a.- Bi adar (bata euskaraz eta gazteleraz bertzea) 3 urtetik 4 arte.
- b.- Musika eta Gorputz Heziketan espezialistak diren irakasleak.
- c.- Bi hizkuntzetan aukera (Frantsesa edo Ingelesa) OHoko 6. mailaz geroztik hizkuntz horietan tituludun diren irakasleekin.
- d.- Hizkuntza modernoaren sarrera (Frantsesa) OHoko 3. mailaz geroztik.

e.- Informatika gela ikasleen erabilerarako.

f.- Psikomotrizitate gela.

g.- Heziketa berezia behar duten ikasleentzat, irakasle espezializatuak.

h.- Tailer gela behar duten ikasleentzat.

Herri kiroleko neskek kontent etorri dira Galesetik

Munduko sokatira txapelketan bosgarren postua lortu zuten

PABLO MENDIBURU

Maila ona erakutsi dute Basaburuako neskek Galeseko munduko sokatira txapelketan. Club mailan, 480 kilotan, bosgarren postua lortu zuten Eskoziako taldeari tiraldia irabazi ondoren. Erran behar, Bizkaiko Gaztedi taldea lortu zuela maila horretako lehen postua. Aipatu dutenez, neska japoniarrak eta mutil ingelesak omen dira sokatiralarari hoberenak eta okerre-nak Galeseko bazkariak.

Txakur txertaketa

Martxoaren 22an Almandozen, goizeko 9etan, Berroetan 12,30etan, Anizen arratsaldeko 3,15etan, Zigan 4,15etan eta Zuraurren 6,45etan, betiko lekue-tan. 1.650 pezeta ordaindu beharko da zakurbakoitzeko eta kartilla eraman.

☐ **Almandozen** bestak antolatzekeo batzarreak egi-ten ari dira. Aurten ekainaren 9an ospatuko dira.

☐ **Berroetan** plazako obra bukatzekotan dago.



Elurra Basaburu aldera ere iritsi da

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Udaberriko arropak eta telak

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

M^{re} Dolores Mirana TOPOGRAFOA

NEURKETAK • PLANOAK



Lur neurketak
Luberrriak

Landaketak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

FZ

FOTO ZALDUJA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure

karretek ORDU BATEZ REBELATZEN

DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

Beatriz Apaindegia

Espezializatutako zentru akreditatua

Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.

Zatoz eta "Importancia de tu imagen" liburua oparituko dizugu

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

Esquisarri jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

URDAZUBI

Iñauterietako kronika

Hiru koadrila ibili dira auzoz auzo eskean

ALIZIA OLAIZOLA

Iñauteriei hasiera ona emateko eskolako haurrek besta ttiki bat egin zuten otsailaren 19an. Mozorroto eta gero elkarrekin bazkaldu zuten. Bazkalondoa, dantzaldia, Arantxa Soubelet akordeonaz lagunduta. Otsailaren 21ean, igandea, gazteek eman zioten hasiera iñauteriei, denak mozorroturik Modesto akordeolariarekin Dantxarri-neko bentetako ibilbidea egin zuten. Arratseko afaria eta dantzaldia Indiano-Baitan izan zen. Biharamonean,

denbora hobegoarekin Leorlas, Alkerdi eta Larrainta auzoetan barna ibili ziren etxez etxe. Arratsean, haur mozorrotoaren desfilea izan zen, hiru hoberenak opariak errezibituz. Gero afaria, dantzaldia eta mozorro nagusien desfilea. Azken egunean, otsailaren 23an, Iribere, Landibar, Tejeria eta herriko itzulia egin ziren, afaria eta finitzeko dantzaldia Indiano-Baitan. Guzira hiru talde ibili dira eskean. Ttikienek Joseba Mujika mutikoa zuten akordeolaria, haundiagoek hemengo bi neska, Arantxa



Urdazubiko gazteak hiru koadriletan banatu ziren Iriberrri, Landibar, Tejeria eta herriko itzulia egiteko.

Soubelet eta Elisabet Bengoetxea eta herriko gazteek beti bezala, Arantzako Modesto akordeolaria. Asteazkenean 'Hausterre eguna' izan zen, goizean meza eta

errauts hartzea, nahi zuenarentzat eta arratsaldean meza eta enterramendua izan ziren Amutsekobordako Felix Bengoetxearenak, otsailaren 22an hil baitzen.

ZUGARRAMURDI

“Urdazuri” euskal ikusgarria prestatzen ari gira

Zortzi herrik parte hartuko dute

KORO ETA MARGARI

Pantxoa Dagerre eta Roger Idiarten ideia izanik proiektu berri bat antolatzen ari gira. Zehazki errateko, euskal ikusgarri bat kantuz, dantzaz eta antzerkiz moldatzea da helburua.

Ikusgarri hunen gaia ibai bati lotua izanez «Urdazuri» izena izan da hautatua.

Parte hartuko dutenak, “Urdazuri” erreka bazterreko zortzi herriak hauek izanen dire: Zugarramurdi, Ainhua, Sara, Senpere,



Azkaine, Donibane Lohitzune eta Ziburu.

Parte hartu nahiko zintuzten guztiak (helduak edo

haurrak) Kisulabe ostatuan emaiten ahal dituzue izenak.

Azkenekoak izanik ere ospatu ditugu ihauteriak eta umore ederrean gainera, hiru egunez treguarik gabe gazteak ibili dira dantza eta algaran. Argazkian ikusten ahal ditugu Mendiko eguna, Zugarramurdiko ihauterietan; egun onena denentzat dudarik gabe.

Bertsularien Eguna giro onean iragan zen

Larunbat honetan, bertzalde, Oskorri taldearen kaltaldia Kirol Aterpean Ikastolaren alde

MIXEL ETA JACQUELINE

Goizetik hiru bertsolarik (Alkat, Xanpun eta Ezponda) baita ere Sarako kantariak parte hartu zuten meza nagusian. Bazkalondan 120 bat jendeke entzun zituzten bertsulariak Omordian. Bertsu zaharrek ere izan zuten arrakasta.

Olhain elkartearen xedea litaik heldu den urtean herritar gehiagok parte hartzea.

Ihauteriak

Larunbata eta igandez ospatu ziren. Larunbatean 40 bat gazte ibili ziren auzoz auzo bi traktorretan. Zorigaitzez aurten ezin zuten zaldiz ibili, hauek gaixoturik izanez. Umorea onean eta giro alai batetan iragan dira



Lan aunitz egin da aurten mozorroen egiteko

MIXEL

oroz gainerik Mikel Aphetegi arbonar txistularia, Paxkal Duhau senpenter txistularia eta Jean Michel Gerard saratar atabalariari esker. Aurten iduri luke saratar gehiagok parte hartu

dutela eta ez da nihundik ere makurrago. Gainerat azpimarratu behar da ere lan asko eginik izan dela mozorroen egiteko eta lehengo aroetako jauntzien aurkitzeko.

Aspaldiko partez artza

atera zen. Arras ihauteri herrikoia zen, pertsonai bitxi batzu ateratzen zirela karia hortarat, erdi gizon erdi abere, hala nola momotxorroak. Igande goizean buruhandiak (eskerrak Leitzako Aurrera Elkarteari) eta talde bat 'Clown' edo pailasoz mozorroturik, giroari alaitasuna eta umorea emanez. Zazpiak Bat taldekoek dantza andana eskaini zaukuten Urruñako Txarangak lagundurik.

Oskorri Saran

Martxoaren 14ean arratsaldeko 5etan emanaldia eskeiniko du Kirol Aterpean. Ondotik erromeria Berako Zizkuitz txarangarekin. Kaltaldiaren mozkina Ikastolarentzat izanen da.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

NATUR ETA ESKU TERAPIA

QUIROPRAKTIKA

Sendatzeko modu naturala da. Interesatzen bazaizu deitu telefono honara: ☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**



GESPAM, S.L.

Mendinueta 12 • ELIZONDO
Tfnoa eta Faxe: 45 21 92

M^e JOSE DEL MORAL ARIZTEGI

☛ **GESTORIA ADMINISTRATIBOA**

☛ **ASEGUROAK:**

GAN – AEGON – AGF

☛ **KONTSEJUAK:**

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontuetan

Zerbitzu integrala enpresarientzat

Deitu konpromisorik gabe!!

EZKONTZAK

Alfonso Joakin Oiartzabal y de Anta eta M^a Dolores Ceballos Indakoetxea, Goizueta eta Leitzakoa, otsailaren 27ean.
Hamid Abatal eta M^a Luisa Alzuguren Peña, Casablanca (Marokko) eta Berakoa, martxoaren 2an.

JAIOTZAK

Eneko Lujanbio Apezetxea, Goizuetakoa, otsailaren 21ean.
Eider Pikabea Mitxelena, Berakoa, otsailaren 14ean.
Nerea Larretxea Agirre, Berakoa, otsailaren 20ean.
Bittor Txantre Irazoki, Berakoa, otsailaren 24ean.
Henri Etcheverry, Sarakoa, otsailaren 22an.
Naroa Loinaz Etxeberria, Igantzikoa, martxoaren 2an.
Itziar Pellejero Iguzkiagirre, Lesakakoa, martxoaren 3an.
Aurelio Bertiz Grazena, Donezteekoa, otsailaren 22an.

HERIOTZAK

Salvador Etxandi Jauregi, Arraiotzen, otsailaren 18an, 73 urte.
Julian Irigoien Goñi, Gartzainen, otsailaren 22an, 69 urte.
Anastasia Sagastibeltza Etxeberria, Elizondon, otsailaren 21ean, 82 urte.
Mercedes Ribed Boltoba, Elizondon, otsailaren 21ean, 94 urte.
Felix Bengoetxea Maisterrena, Urdazubin, otsailaren 22an, 73 urte.
Jeronima Bidegain Seminario, Elizondon, otsailaren 24ean, 88 urte.
Roman Soria Ariztegi, Beran, otsailaren 17an, 72 urte.
Mattin Etcheverry, Saran, otsailaren 17an, 66 urte.
Roger Laborde, Saran, otsailaren 19an, 70 urte.
Martin Ariztegi Bera, Iturenen, otsailaren 22an, 51 urte.
Paulina Arriegi Urkiola, Leitzakoa, otsailaren 11an.
Anastasia Sagastibeltza Etxeberria, Leitzakoa, otsailaren 21ean.
Rufino Alvarez Marchena, Leitzakoa, martxoaren 3an.
Luciana Oteiza Indart, Legasan, otsailaren 25ean, 84 urte.

J. M. ANDUEZA IRIARTE

Instalazio elektrikoak

- ☛ *Sua itzaltzeko tresna guztiak*
 - Mangerak
 - Extintoreak
 - Sua mozteko atek: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...
- ☛ *Alarmak: Suarenak, lapurretarenak, gasarenak...*

Askain Karrika 12 ☎ 630854 - **BERA**

ARLA

ARDOTEGIA

Ardo botilatua
eta botilatu gabea
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

ARROPA DENDA



CERVANTES

HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Berako Pilota txapelketaren finalak

XXgarren edizioan 80 bikote baino gehiagok parte hartu dute maila ezberdinetan

Otsailaren 28an jokatu ziren Eztegara pilotalekuan Berako pilota txapelketaren hogeigarren edizioaren finalak.

Gure Txokoa elkarteak antolatutako txapelketa honetan 80 bikotetik goiti eman dute izena.

Finaletako emaitzak

Eskuz binaka, benjamin mailan: Aranibar-Irazoki, 18; Zurbano-Telletxea, 8. **Alebin mailan:** Larretxea-Madera, 18; Irazoki-Altzuguren, 7. **Infantil mailan:** Oiartzabal-Saragueta, 18; Mitxelena-Lasaga, 13.

Palaz, gomazko pilota-rekin, haundiak: Errandonea-Sanz, 21; Santamaria-Fagoaga, 30.

Azkenik, paletan laruzko pilotarekin exhibizio partidoa jokatu zen: Gartzia-Fagoaga, 20; Santamaria-Petirena, 30.



Berako XX. pilota txapelketaren garaileak

KARMELE



Doneztebeko Erreka eskubaloitzaletako taldea ongi dabil

ZALDUA

Herri Kirol federazioaren asanblada burutu zen

Nafarroako Herri Kirol federazioak bere asanblada orokorra burutu zuen, iazko diru kontuen berri emanez. 14 milioi t'erdi inguru gastatu zituen iaz eta aurten bertze bi milioi gehiago gastatuko dutela uste dute. Izan ere, Bera, Lekaroz, Altsasua, Lekunberri eta Iruñean edozein herri kirol praktikatzeko materiala izanen duten zentroak paratzeko asmoa dute.

Aurtengo proben egitaraua ere ia erabat zehaztu zen txapelketei dago kienez, ikuskizunak antolatuko dituzten udalen erantzunaren esperoan.

BOTE - PRONTON

- **BASABERRI** taldeko neskak esperientzia arras polita bizi izan dute Galesen munduko sokatira txapelketan parte hartuz. Tiraldi bat ere irabazi omen zuten Eskoziaren kontra.
- **BETI GAZTE** Lezakako elkarteak igande honetan burutu du bere asanblada. Gaien artean, Errealarekiko hitzarmena zegoen.
- **GOIZUETAKO** futbito txapelketaren finalak jokatu dira, emakumezko zein gizonezkoen mailetan. Parte hartzea eta ikusmina ikaragarriak izan dira.
- **DONEZTEBEKO** Erreka eskubaloitzaletako taldeak liga hasierako arazoangainditu dituzte eta bigarren postuan dago, momentu honetan, Nafarroako ligan.

Hamabostaldiko jokaldiak



Herri Kirol Federazioaren inizatiba.

Zenbait herritan -zonaldean Bera eta Lekarozen- herri kirolarekin edozein modalitatetan praktikatu ahal izateko zentroak jartzeko asmoa dute, beharrezko material guzietan.

Paleta laruzko pilotarekin txapelketarik ez jokatzeko Bera.

Aurten hogeigarren edizioa burutzen zuen Berako pilota txapelketan ez zen modalitate polit honetan jokatzeko izan, bikote bakarra apuntatu baitzen.

Artzantzaren etorkizuna zalantzan

Europako kompetentziak esnea, gazta eta bildotsaren prezioak jeitsi arazi ditu azken urtetan

Ardia da abelzantzaren munduan aziendarik lagunduena, momentuz behinipein.

Subentziotan oinarrituta dago neurri haundi batean ardiaren bai ala eza. Artalde bat daukanak, 3.500 pezeta inguru hartzen ditu urteko eta ardiko. Honez gain, mendialdeko artzaiek Nekazaritzako Aseguru Sozialean kotizatuz zero kasik 2.000 pezeta gehiago jasotzeko modua badute. Beraz, urtean mila durotik goiti ardi bakoitzeko.

Dena den, arriskutsua dirudi honek, laguntzak zorionekoak badira ere, betirako ez direla frogatu baita behin baino gehiagotan. Laguntza hauek ematea baino aunitzez bidezkoagoa dirudi artzantza produktuei salneurri egonkor bat ziurtatzea, orain baino aunitzez altuagoa, noski.



Sektorean dagoen kompetentzia izugarria da. Esnea litroko 30 pezetatan ekarri daiteke Europako ekialdetik eta bildotsa ere arras prezio bajutan saldu da.

Bildotsaren prezioa, errate baterako, behiti egin du azken urteotan. 1989an bildotsaren kiloa kanalean 840 pezeta ordaintzen bazen, 1992an 720 pezeta bertzerik ez zen pagatzen. Bizirik saldutako bildotsak ere prezio hagitz merketan saldu da –kiloa 300 pezetatan, kasu batzutan–. Kontutan hartu behar da, kanpoko kompetentzia (Akitania, Britainia Handia eta Ze-

landa Berritik, batez ere) izugarria dela. Komerzializatzeko orduan, berriz, zailtasun haundiak jartzen dizkiote hemengo produktuei sanidade aldetik.

Behiki kooperatiba, Euskal Bildotsaren Kofradiaren bitartez alor honetan ere lanean hasia bada ere, bildotsaren salmenta gehiena tratanteen bidez egiten da oraindik.

Ardi esneaz, berriz, gauza aunitz ezin erran. Izugarri sakabanatua dago base-

ritan produzitzen den ardi esnearen erabilpena. Badira “Enaquesa”ri –Nafarroako gazta egiteko enpresarik haundiena– saltzen diotenak. Enpresa honek ez du inoiz salneurri agintzen bildu aurretik eta gehiengotan hagitz berandu ordaintzen du esnea. Badira baita ere bertako gasnagileei ematen dietenak, Baztanen adibidez. Hala ere, aunitz gelditzen dira kontrolatu ezinik, esnea etxean gazta egiteko erabiltzen dutelako

Juan Martin Aleman, Amaiurko Alemanttoneako artzaia:

«Artzantzatik bizi daiteke, baina horretarako 400-500 buruko artaldeak behar dira»



► Etorkizunik badu gaur egun artzantzak?

►► Etorkizuna nahiko eskaxa izan dezake artzantzak gaur egun planteatua dagoen bezala. Europatikan konpetentzia gogorra dator, prezioen aldetik batez ere. Estatuko politikoek errekonbertsioa egin nahi dute sektore guztietan eta horrek artzantza ere hartzen du. Horregatik, poliki-poliki subentzioak ere kentzen ari digute.

► Beraz, artzantzatik bizitzea ezinezkoa litzateke...

►► Bizi, uste dut baietz bizi daitekela, baina horretarako neurri bateko artaldeak be-

«Gaurko krisiarekin erosleak prezioari gehiago begiratzen dio kalitateari baino»

harko lirerateke, 400 edo 500 burukoak. Horrelakoak arras guti daude Baztanen.

► Europako prezio merkeen aintzinean zein da irtenbidea?

Irtenbidea kalitatea izanen litzateke, baina horretarako presio haundiak daude. Kontsumitzaileek badakite kalitatea non dagoen baina

ekonomi mailan dagoen krisiarekin jendeak poltsi-

koari gehiago begiratzen dio kalitateari baino. Bertako produzitzaileontzat errexena elkartzea izanzen zen eta elkartasunean esnea edo bildotsa saltzea.

SANIDADE ERREGISTROA DUTEN GASNATEGIAK

Gasnategiak

BASATE
BAZTAN
ETXELEKUA
ETXETXIPIKO GAZTA
LANTZIBI
LIZUN
MENDIALDE

Herria

ETXALAR
ARIZKUN
URDAZUBI
ELIZONDO
LEGASA
SUNBILLA
AMAIUR

Igantzi, Elbete eta Donamarian hiru gasnategi berri daude

Datu Iturria: ITG

ARDI-BURU KOPURUA 1992an*

* Latxa arrazakoak (esnea saltzeko)

	Ardi buruak	Artzaiak
BAZTAN ¹	31.916	261
BORTZIRIAK	8.992	129
LEITZALDEA ²	9.831	166
MALERREKA ³	7.406	95
GUZTIRA	56.621	651

¹ Zugarramurdi eta Urdazubi barne

² Leitza, Goizueta eta Areso

³ Bertizarana eta Sunbilla barne

Datu Iturria: Nafarroako Gobernuoko Nekazaritza, Abelantza eta Mendi saila

Etiketa izateko eskubidea ematen du Sanidade Erregistroak

(eskualdean 140 baserri baino gehiagotan) edo in-guruko jatetxeei -mamia egiteko- edota zonaldeko gaztagileei saltzendentelako. Kontutan hartu behar da gazta etiketa eta guzti merkaturatzen saltzeko beharrezkoa den Sanidade Erregistroa hauetatik hamar gasnagilek bertzerik ez dutela, ITGko

datuen arabera.

Baserriko produktu guztiei bezala, ardi esnari ere arazo haundiak sortu dizkio kanpotik ekarritakoak, bi urtez 20 pezeta/litroko galdu bait ditu. Zurrumurrak diotena egiaztatzen bada eta Europako ekialdetik 30 pezetetan sartzen badute esne litroa, zeinek daki zertara

iritsiko den artzairen problematika guzti hau.

Behiki elkarteko kidea den Juan Martin Aleman Amaiurko artzaiak dioenez, soluzioa bi aldetik bilatu behar da: "alde batetik artzai eta nekazariak kooperatibetan elkartuz, eta bertetik, kontsumitzaileak egitan baserri mantentzea nahi badu

inportazio haragiari eta esnari uko eginez eta bertako baserrietakoa kontsumituz, kalitate aldetik hobea dela dudarik ez bait dago".

Oskar TXOPERENA
eta Aitor AROZENA

Pello Martikorena:

«Kalitate-prezioa kontutan hartuz, produktu logratuak ditugu»

Berako 'Conservas Martiko' ren iazko fakturazioak %25ean egin zuen goiti

Orain dela zazpi urte hasi zenean produkzio guziaz ahatetan zentratua bazuen ere, azkeneko urte honetan produktu lerro berri batekin hasi da lanean, arraiki keztatuekin, alegia.

Iaz, Noruegatik ekarritako 72.000 kilo izoki eta Iturengo arrain-haztegitik ekarritako 2.000 kilo amuarrain komertzializatu zituen.

Produktu berri hauek fakturazio osoa 130 milioi pezetatan goratu dute. Horrela bada, joan den urtean ahatearen inguruko produktuekin eta arrain keztatuekin 650 milioi pezeta fakturatu zituen osotara, 1991ean baino %25a gehiago. Urte honetarako helburua ere kantitate horiek goratzean jarriak ditu, gutienez bertze %15a bederen.



«Orain duela zazpi urte baino aisa produktu gehiago egiten ditugu»

ttipi-ttapa. Ahatearekin segitzen den prozesua zein da?

P. Martikorena. Arantzan hazi, baserrietara ekarri, baserrietan azkeneko fasea egin eta gero berriz harat eraman eta hango mataderoan hil. Han hiltzen den produktu hori egiten da gero Beran

despiezatu, elaboratu eta hemendik komertzializatu.

ttipi-ttapa. Produkzioa urte osoan berdina da edo...

P. Martikorena. Gure tenporadarik azkarrena urritik abendu bitartekoa da. Frantzian ere, produktu hauek eguberrietako beste

begira enfokatuta daude eta horren ondorioz gure fakturazioa urte hasierako hila-beteekin konparatuz hiru aldiz gehiago bederen haunditzen da.

ttipi-ttapa. Horren arabera garai horretan langile gehiago beharko duzue?

P. Martikorena. Bai. Normalean hogeitangile, hemezortzi elaborazioan eta bi administrazioan eta hiru hilabete horietan 40.

ttipi-ttapa. Ahatearen zati guziak aprobetxatzen dituzue. Halere, orain lehen baino produktu ezberdin gehiago egiten duzue, ezta?

P. Martikorena. Bai, orain hasieran baino aisa produktu gehiago egiten ditugu. Lehen ere zati guziak probex-ten genituen baina produktu gutiagotan. Lehen, errate baterako, egiten genuen lata gibel osoarekin edo gibela justun xehetu eta latan sartu, eta orain berriz, haragia, grasa eta gibelarekin porzentaia egiten dire.



«Etorkizun hurbilerako, gure apostua ditugun produktuak merkatuan ongi kontsolidatzea da»

ttipi-ttapa. Eta salmenta zein tokitan egiten duzue?

P. Martikorena. Madrid, Bartzelona eta estatuko iparralde osoan batez ere. Merkatu alemandarrean eta suizoan estudioak egiten ari gara baina momentuz ez gara sobera saiatu. Dena dela Euskal Herrian 'a tope'.

ttipi-ttapa. Eboluzio somatu duzue, ezta?

P. Martikorena. Dudik gabe. Gurea ez da produktu hagitz garestia eta ezta ere hagitz merkea. Kalitate-prezioa kontutan hartuz nahiko produktu logratua da. Zerri pate batetik por ejemplo fuerte diferentziatzen da gurea eta onarpen ona izan du horregatik. Salmenta momentuz goiti doaie eta estadistika batzuren arabera, urte batzuz bederen goiti joanen da. Jendea hasia da produktua ezagutzen eta

merkatua sendotzen joanen da.

ttipi-ttapa. Guzira zenbat produzitzen zenuten iaz?

P. Martikorena. Arantza eta Berako granjetan 50.000 ahate; Etxalarren eta Zuñigan 30.000 ahate eta Bizkaian, Oiartzunen, Behobian eta hor barna ditugun granjen artean 120.000 ahate inguru. Kilotara pasatuz, ia ia 600.000 kilo.

ttipi-ttapa. Arrakasta honen klabea zertan dagoela ikusten duzu?

P. Martikorena. Produkzio prozesu osoa bertatik kontrolatzean eta asuntua ttikititik hartu eta sobera enbergaduran sartu gabe eman ditugula pausuak. Lehenik Arantzako haztegia, gero Ibardinen fabrika ttiki bat eta 1991ean Berako fabrika honetara etorri... Gauregun sanitate kontrolak eta ber-



**«Merkatua goiti
doae eta ditugun
prebisioen
arabera, oraindik
urte batzuz
bederen goiti
joanen da»**

tzelakoak aunitzez ere hobekiago ditugu hemen eta ongi ari gara lanean.

ttipi-ttapa. Banaketa zuek egiten duzue zuzenean?

P. Martikorena. Normalean hiriburu bakoitzean bada banatzaile bat. Banatzaileok hartu eman arras estua segitzen dugu, baldin eta noizbait baten batek uzten badu, jakiteko nor diren gure klienteak.

ttipi-ttapa. Etorkizun hurbilerako ba al duzue proiektu berriren bat buruan?

P. Martikorena. Ba Arantzako hiltegia kendu eta Beran jartzea eta produktu berriren batzuk ere ateriko dire baina... azken finean, lehen erran dudan bezala, ditugun produktuan merkatuan ongi kontsolidatzea izanen da gure apostua.

Joxemanuel IRIGOIEN

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Beran** pisua salgai Kanttonberrin. ☎ 630485.

• **Lesakan** pisua eta 200 m²tako bajera salgai. Leku industrialia. Nahi izanez gero guztia edo bertzenaz zatika. ☎ 637872.

• **Pisua** amueblatua alokatzen da Beran, garaje eta terrazarekin. ☎ 630217.

• **Baserria** alokatuko genuke, bizitzeko prestatua, ura, baratza eta zeramika tailer bat jartzeko tokia izan dezala. Bitartekaririk gabe. ☎ 450769.

• **Pisu** bat alokatzen da Beran. ☎ 631218.

Salerosketak

• **200 belar** fardo salgai. ☎ 615124.

• **Ford Fiesta** NA-K matrikulakoa salgai prezio onean. ☎ 630477 (gauetz).

• **Esne tankea** 600 litrotakoa berri berria salgai Uitzin. ☎ 510498.

• **Bainuko** manpara ispiluekin salgai 25.000 pztatan (1,40 x 0,70). Egoera onean. ☎ 943-611721.

• **Artzai-txakurra**, ahalt baldin bada arra, erosiko

nuke. ☎ 945-162905 edo 945-221205 (Iñaki).

• **Behi**, aretxe eta bildotsak erosten ditut. ☎ 450160 eta 450042.

• **Pekines** arrazako bi txakur salgai. ☎ 631218.

• **Kitarra** 'Ibanaz' malleta eta pedalakin salgai 40.000 pztatan. Kablea eta zinturona oparizat. ☎ 581039.

• **Mendi** motoa Bultaco Serpa salgai. ☎ 943620317.

• **Kawasaki** KLR-650 Trail motoa salgai 350.000 pezetatan. Urria bitarteko aseguroa. ☎ 631034.

• **Erremolke** bat estrelnatu gabea salgai, prezio onean. ☎ 635167.

• **Talbot** Horizon kotea, motor berriarekin salgai. ☎ 510404.

• **Eskiak** eta **botak** (43a) salgai, estrelnatu gabeak. Prezio interesgarria. ☎ 514081.

Denetarik

• **Lesakako** inauterietan urrezko kate eta lauburu bat galdu ziren Zialdo inguruan. Aurkitu badituzu deitu 450434 ☎ra.

• **Lesaka** edo **Beran** perla txurizko pultsera galdu dut. Deitu mesedez ☎ 637095. Eskerrik asko.

• **Etxalarren** argazki-makina bat aurkitu da. Bere jabeak telefono honetara dei dezala: ☎ 635041.

• **Lesakako** Zialdon inauterietan erlojua galdu nuen. ☎ 451577

Harremanak

• **Urdazubiko** Begoña J.rentzat, zorionak zure urtebetetzearengandik eta ongi pasa. Zure lagunak.

• **Etxalarko** Ana Mariri: zorionak zure 17. urtebetetzean bele baten partez

• **Elizondoko** Maria Belateri, ahazten ez zaituen muxugarri batek 101 urtetara irits zaitezten opa dizu. Zorionak!! Txus.

• **Irlandan** dauden Beatriz, Ima eta Uxueri. Ingeles asko ikasi eta euskara ez ahaztu. Leitzako lagun bat.

• **Zubietako** Joanes Eli-

zalderi zorionak bere urtebetetze egunean (otsailak 18). Lagun baten partetik.

• **Leitzako** Igorreri 10. urtebetetzean (otsailak 11) eta bere lehengusu Josuri 2. urtebetetzean (otsailak 7) zorionak. Jon, Iñigo eta Josebaren partez.

• **Olabideko** Martin Arizaleta, Urdazubiko Xabier Iriarte eta Sarako Estefan Barneixeri zorionak. Zure laguna Mattin.

• **Urdazubiko** Miren S.rentzat, zorionak zure urtebetetzearengandik eta ongi pasa. Zure lagunak.

• **Iturengo** Mariarentzat: zorionak zure 15. urtebetetzeagatik (otsailak 25). Zure Doneztebeko laguna.

• **Narbarteko** Ana O.rentzat: zorionak zure urtebetetze egunean. Zure lagun baten partez.

• **Zugarramurdiko** Koro Irazokiri zorionak berriro ama izateagatik. Muxu haundi bat. Margari.

• **Sunbillako** Maribeli zorionak bere urtebetetzean. Ea noiz ekartzen duzun Onddoz betetako piper kazulkada bat. Goizuetako "autentikoen" partetik.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA Tfnoa:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

BAZTAN - BERA - LESAKA IKASTOLAK



BAZTAN IKASTOLA ☎ 580256 - ELIZONDO



LABIAGA IKASTOLA ☎ 630172 - BERA



TANTIRUMAIRU IKASTOLA ☎ 637308 - LESAKA

**EUSKARA eta
EUSKAL KULTURAREN
TRASMISIOAREN
BULTZATZAILEA**

**EUSKAL ESKOLA
BERRIAREN
BIDEA JORRATUZ**

“JESUSEN BIHOTZA” IKASTETXEA



- ✎ KRISTAU HEZIKETA
 - ✎ BORTZIRIETAN AUKERA BAKARRA:
A ETA B EREDUAK (AZKEN HONEK
EUSKARA ETA ERDARA PAREKATUZ)
 - ✎ JANTOKIA: BERTAN EGINDAKO JANA
 - ✎ JOLASTOKIAK: KANPOAN ETA BAR-
NEAN ARGITSUAK ETA ZABALAK
 - ✎ HELDUENTZAKO EUSKALTEGIA
 - ✎ FRANTZESA 8 URTETATIK AINTZINERA
- Legia 18 - **BERA** ☎ 630009

KONTU BETIKOARI BIDE BERRIAK JORRATUZ

ALMACENES ETXANIZ, S.A.



Marmolezko enzimera duen 70 zm. armairu lakatua
lababoa sartzeko modukoa + momomando griferia + ispilua:
guztia 59.000 pzta BEZ barne

Juan Arana, 3 - Tfnoa eta faxa: (943) 611767 - **IRUN**

Lesakako Iturria anaiak

Armairu lakatua
+ lababoa + grifoa + ispilua
Guztia, 28.500 pztatan
BEZ barne

Martxoan: Monomando
Griferiaren hilabetea
**% 15eko
DESKUENTOAK**